# Bergarako hiribilduaren 750. Urtemuga (1268)



## Urtemuga historikoa ospatzeko zenbait aukera

**Proposamena:**
**Valen Moñux**
**Miguel Angel Elkoroberezibar**

# Bergarako hiribilduaren 750. urtemuga (1268)

**Gogoan hartzeko moduko urtemuga izango du Bergarako herriak 2018 urtean.**

"Bergarari buruzko lehen aipamena 1050. urtean ageri da agirietan, Sanchok San Juan de la Peñako monasterioaren alde egin zuen Aritzetako San Migel monasterioko lursail eta sagasti batzuen dohaintzari buruzko eskrituran.

Gaztelak 1200 urtean Gipuzkoa bortxaz konkistatu zuenean, hiriak sortzeko prozesu bat hasi zen, ondoko helburuokin:

Gaztela Kantauriko portuekin bat egin eta merkataritzarako komunikazio-bideak sortu nahi zituen. Izan ere Bergara, orduan, Gasteiztik Deba eta Getariarako bidean zegoen. Horren ondorioz, garraiolari eta merkatarien topagune izan zen.

Gaztelako monarkiak, gainera, herri-gune indartsuak sortzeko ahalegina egin zuen, bando-kideen indarrari aurre egiteko, baita Frantzia eta Nafarroarekiko defentsarako gotorleku izan zedin ere. Hori dela eta, 1273. urtean zergetatik salbuetsi egin zituen Alfontso X.ak hiriko bizilagunak.

Horrela bada, *Villanueva de Vergara* izenarekin, Alfontso X.a *Jakintsuak* sortu zuen 1268an. Gasteizeko foruan oinarriturik Udalaren gobernua herritar guztiek osatzen zuten, kontzeju irekian".

*www.bergara.net*



**Beraz, 2018an Bergarako hiribilduak 750 urte beteko ditu.**

Ondorengo proposamenak goian aipatutako urtemuga gogoratzeko zenbait ideia aurkezten ditu. 2018an ospakizunak antolatu nahi izanez gero, beharrezkoa da prestaketa lan gehienak 2017an egitea. Gastu proportzio handia ere aurten egin beharko lirateke.

Aukera desberdinak dira, baina denak dute irizpide amankomun bat: Bergarako tradizioan eta herriko nortasunean oinarritu, jarduera oroipengarriak martxan jartzeko, herritar askoren parte hartzearekin.

Aurkezten den zerrenda ez da itxia, ezta aipatutako ospakizunen osagai posibleen zerrenda zehatza. Hala ere, adibide modura eta inongo beste aukerarik baztertu gabe, hainbat ideia luzatu nahi genituzke proiektua martxan jartzeko oinarri lagungarri modura.

# 1

# Obra sinfoniko korala

Bergarako tradizio sinfoniko korala aspalditik dator. Antzinako kontzertu historikoak kanpoko orkestekin eta bakarlariekin antolatzen baziren ere, gaur egun bertan ditugu musikari eta kantari nahikoa horrelako errepertioroa jarduteko.

Hirbilduko 750. urteurrena aitzaki egokia da estilo honetako kontzeru berezia antolatzeko. Gai honi buruzko obra berri bat ere enkargatu daiteke herriko musikagile baten bati.





# 2

# Antzerki musikala



Azpalditik Bergara oso identifikatuta dago antzerki musikalaren ikuskizun formatoarekin. Euskal Herrian oso ezaguna da Bergarak dagoen indar kulturala. Honelako obrak taularatzeko ahalmena, tradizioa bihurtu da eta, horrekin batera, herriaren identitate seinale garrantzitsua.

Gure herriko historia luzean oinarrituta, erraz aurkitu daitezke gai egoki bat formato handiko musikal bat sortzeko, euskaraz eta Bergarako artistek egindakoa.



# 3

# *Txanton Piperri* opera



“Las primicias de la dramática vasca puede decirse que se iniciaron en Vergara pues en esta insigne villa se representó *El borracho burlado*, del Conde de peñaflorida, primera obra teatral con con cantos euskaros de que se tiene noticia, y cuya composición era con cantos hablados y partes cantadas en euskera.
Cuando *Txanton Piperri* inició la ópera vasca, exclusivamente musical y exclusivamente en euskara, Vergara fue la única población, aparte de las capitales, en que se puso en escena, formando parte del brillante y no superado cartel dispuesto para sus memorables fiestas éuskaras de 1905”.
***Teatro euskaro****. Antonio M. Labayen. Ed. Auñamendi. 1965*

El borracho burlado operako 250. urtemuga ospatzeko 2015eko martxoan taularatu zen, estreinatu zen toki berean: Bergarako udaletxeko batzar aretoan.

Hildo berean, 750 urteurrena aprobetxatuz, eta Mintegiko antzoki berria izanda, badago aukeraren bat opera egiteko berriz Bergaran.

Bere bukaerako koroa oso ezaguna da:

**Euskal Herriko semeak gera,**
**zor dioguna bizia.**
**Beraren alde emango degu,**
**zainetako odol guztia.**

**Bere lege eta hizkuntza ederrari,**
**diogun maitasun haundia.**
**Hil arte ohiu egingo degu,**
**bizi bedi Euskal Herria!**



FIESTAS-EUSKARAS EN VERGARA

Teatro Principal

Las noches del domingo 8 y lunes 9 de Octubre de 1905 se pondrá en escena la aplaudida ópera vascongada en tres actos

CHANTON-PIPERRI

del joven profesor D. Buenaventura Zapiraín, libreto de D. Toribio Alzaga, con la cooperación de los distinguidos artistas D.ª Isabel Serra, D. Felipe de Arando y D. Gervasio de Ercilla y el concurso del Orfeón Euskeria.

REPARTO

| | |
|---|---|
| Maricho. . . . | Srta. Isabel Serra. |
| Chanton-Piperri. | D. Gervasio de Ercilla. |
| Lazcano. . . . | » Elicio de Irigoyen. |
| Berastegui. . . | » Felipe de Arando. |
| Loyola . . . . | » Félix de Arizmabarreta. |
| Lizarreta . . . | » Francisco de Beloqui. |
| Balda . . . . | » José de Berastegui. |

Coro de tiples, de oñacinos, gamboinos, bailarines, y coro general.
Tomará parte una nutrida orquesta compuesta de profesores de San Sebastián y Bilbao.

A las nueve en punto.

Precios de las localidades

| | | |
|---|---|---|
| Asiento de banqueta central con entrada. . . | Pesetas | 5 |
| » » lateral » » . . . | » | 3,50 |
| » anfiteatro » » . . . | » | 3,50 |
| » galería » » . . . | » | 1,50 |
| » paseo » » . . . | » | 1 |

NOTAS.—Estas representaciones se llevarán á efecto bajo el amparo del Ayuntamiento de esta villa.
Las señoras que asistan á dichas representaciones deberán ir sin sombrero.
Se establecerán trenes especiales hasta Durango y Deva media hora después de terminada la función.

Vergara: Imp. de J. López.

# 4

# Festa herrikoia *Estanpak Bergarako historiaz* antzezpenarekin

Egun bateko edo asteburu bateko ospakizun berezia proposatzen da. Horretarako, gure kulturan oso errotuta dagoen “Kilometroak”en tankerako ekitaldia eta gure herrian urteetako tradizioa duten “Estanpak” emankizunen arteko konbinaketa proposatzen da. Proiektu honen egileek Ataunen antolatzen duten “Ibilbide magikoa” emanaldi herrikoia ere izan dute inspirazio iturri.

“Kilometroak”en ez bezala, ibilbidea hirigune historikora mugatuko da. Ibilbidean zehar ikusleek gune bakoitzean antzeztuko diren estanpa desberdinak ikusteko aukera izango dute. Estanpa hauek izaera herrikoia daukate eta antzerkia, musika eta dantza tartekatu dezakete, bai modu sekuentzialean edota baita denak batera ere; kantek eta bertsoek ere euren protagonismoa izan dezakete. Pintura, eskultura edo bestelako instalakuntzen presentzia ere ez genuke baztertuko.

Dokumentu hau ez da gidoi itxi bat eta Bergarako historiako mugarri esanguratsuak eta pertsonaia edo ekintza aipagarriak antzezteaz gain, Bergarako historiaren eta bere herritarren izaeraren adierazgarri izan diren lanbide eta jarduerak ere biltzea proposatzen da.






**GIDOI PROPOSAMENA**

**1. Bergara bere sorrera baino lehen**

**2. Erdi Arotik Ilustraziora**
- Erdi aroko azoka
- Domingo de Irala
- San Martin Agirre
- Ilustrazioa
- Bergara monumentala

**3. Aro Garaikidea, atzera begiratuz**
- Bergarako besarkada
- Angiolilloren exekuzioa
- Musika
    - Boni Laskurain
    - Roman Oyarzabal
    - Remigio Mujika
    - Ignacio Gonzalez Escala
    - Miguel Gonzalez Bastida.
- Pintura
- Gerra Zibila
- Telesforo Monzon
- Bergarako lanbideak
- Diktaduraren amaiera

**4. Etorkizuneruntz**

# Festa herrikoia "Estanpak Bergarako historiaz" antzezpenarekin




1957an Bergaran egindako ***Euskal Estanpak***



*Kilometroak*



# *1. Bergara bere sorrera baino lehen*

Erdi Aroko erara nekazariak lursailak lantzen arituko lirateke estanpa honetan, animaliez eta garai bateko tresna zaharrez baliatuz. Antzezpena hirigunetik kanpo izango litzateke. Bergarari buruzko lehenengo aipamena 1050ekoa izanik eta bertan Aritzetako San Migel aipatzen dela kontutan hartuz, bere magaletako bat izan beharko luke erreferentzia puntua, baina orografiari eta bertan egindako azpiegitura lanei erreparatzen badiegu, leku nahiko helezina gertatzen da. Agertoki  hau Artzamendi dorrearen ingurura eramatea proposatzen dugu, geroagoko eraikuntza izanagatik ere, interes handikoa baita eta ia San Migelpean baitago.  Hondatuta dago eraikina, baina bere itxura oso iradokitzailea litzateke Bergarak 70 biztanle besterik ez zituen garaia islatuko zukeen eszenan erabiltzeko.



Artzamendi jauregia





# 2. Erdi Arotik Ilustraziora

**Erdi aroko azoka**
Bidekurutzeta kale ingurua izan daiteke leku aproposa garai hartan gari azoka garrantzitsua egiten baitzen bertan. Ezaguna da Bergarak bere sorreratik zuen pribilegioa astean hirutan gari azoka egiteko. Hori zela eta, Bergaran berrogeitik gora irin-errota egotera iritsi ziren. Bidekurutzeta plaza zaharrean egiten zen azoka hura, gaur egungo San Pedro eta Bidekurutzeta kaleak elkartzen diren gunean. Dena dela, Bergarako sorrera garaiko hiru kale nagusietatik edozein izan zitekeen leku aproposa, Barrenkale, Artekale edo Goenkale kaleak. San Pedro kalea bera ere, sasoi batean Merkatu kalea deitu izan zutena, balekoa izan zitekeen, sasoiko merkatariak bertan elkartzen baitziren kalean jartzen zituzten postu ugarietan.



Bestalde, arma zurien fabrikazioa (labanak, guraizeak eta arma zorrotzak) oso errotuta zegoen Bergaran. 1526an dagoeneko bazegoen herrian kofradia profesional bat eta Bergaran egindako labanak, matxeteak eta guraizeak saltzeko konpainia bat sortu zuten Sevillan. Sasoi berean, Bergaran bazeuden errementariak, jostunak, galtzerdigileak, zorrogileak, grabatzaileak, sarrailagileak, saskigileak, harakinak eta abar luze bat.

**Domingo de Irala**
"Bergara kapitaina" bezala ezaguna, XVI. mendeko esploratzailea eta konkistatzailea, Paraguaiko fundatzailea. Bergarako historiaren azalpena egiterakoan ezinbestekoa den pertsonaia, baina ikuspegi objektibo batetik abiatuta, Amerikaren konkistaren eta pertsonaia nabarmen honen alderdi ilunenak ezkutatu gabe.



**San Martin Agirre**
Japonian gurutziltzatuta hil zen frantziskotar honen oroimenak bizi bizirik dirau bergararren bihotzetan eta oraindik gaur egun Bergararen ikur nabarmena da. Hain zuzen ere, bere gurutziltzatzearen estanpa urtetan antzeztu izan ohi da. Horregatik, berrikuntza modura, martirioa paisaia natural batean ematea proposatu nahi genuke, errekatik gertu akaso, era horretan Nishizakako mendixka irudikatuko litzateke, Nagasakiko badiaren ertzean.

## Ilustrazioa

Gune hau ibilbideko protagonista handienetarikoa izango litzateke zalantzarik gabe. Antzeztu beharreko pertsonaiak Peñaflorika kondea eta Azkoitiko Zalduntxoak lirateke.

Funtsezko urtemugak izan ziren Elhuyar anaiek wolframioa 1783an aurkitu zutenekoa eta P.F. Chavaneauk platinoa xaflakor egiteko metodo arrakastatsua aurkitu zuenekoa. Gertaera hauek ere euren antzezpena mereziko lukete. Munibe plaza edota Seminarioa lirateke gune egokienak.






## Bergara monumentala

Garai honek Bergarako arkitekturako altxorrak utzi dizkigu: Udaletxea eta San Martin Agirre plazako eraikuntzak, Santa Marina eta San Pedro elizak, eta azken honetan dagoen Bergarako kristoa. Elementu hauek ezinbestekoak dira gure herriko historia-ondarea aintzat hartu nahi duen ibilbide batean.





# *3. Aro Garaikidea, atzera begiratuz*





**Bergarako besarkada**

Urtemuga hau Bergara herriaren izenarekin banandu ezina da. Irizar jauregiaren ingurumarian Bergarako besarkada antzeztea proposatzen dugu. Horretarako bi gudarosterekin kontatu beharko dugu, batetik liberala eta bestetik karlista eta, euren buru, Espartero eta Maroto jeneralak zaldi gainean.



**Angiolilloren exekuzioa**

Estanpa gertaera historiko hura gertatu zen eraikin berean egitea proposatzen dugu.



## Musika

Musikari dagokionez, XX. mendea Bergaran urrezko aroa izan zela kontsidera dezakegu eta kontzeptu hau guztiz egokia da estanpatara eramateko. Udaleko webguneko pertsona ospetsuen zerrendari erreparatzea besterik ez daukagu eta bertan izen garrantzitsuekin egingo dugu topo:

**Boni Laskurain.** Txistularia.

**Roman Oyarzabal.** Bergarako Orfeoiaren lehenengo zuzendaria.

**Remigio Mujika**. Iruñako Orfeoiaren zuzendaria.

**Ignacio Gonzalez Escala**. Bergarako Udal Bandaren zuzendaria XX. mende hasieran eta ospe handiko musikari-familia abiarazlea; horra hor bere semeak: **Jose María, Ignacio, Ramón, Jesús eta Miguel Gonzalez Bastida**.






Remigio Mujika (1866-1958)

## Pintura

Bergarako Eskola deituaren artista plastikoak eta hauen aurrekoak omentzeko garai aproposa da hau.



Bergarako Orfeoia



Fernando Azkargortaren (1919-1973) oleoa

## Gerra Zibila

Gertaera hura oroitzeko estanpa bat antzeztea proposatzen dugu.



Intxorta 1937 Kultur Elkarteko ospakizuna (2013)

## Telesforo Monzon

Mito bihurtu den Bergarako pertsonaia historiko bat Telesforo Monzon bera dugu. Bere figura eta ibilbide pertsonala XX. mendearen metafora dira Bergararentzat zein Euskal Herri osoarentzat. Politikak, hitzaldiak ematen eta kantu herrikoiak konposatzen eginiko ibilbideek merezi dute estanparik proposatzen dugun ibilbide honetan.



## Bergarako lanbideak



Estanpa desberdinetan eta bere kronologiaren arabera, bergararren lanbideak irudikatu nahiko genituzke: metalen transformazioa, ehungintza, eta nola ez, tradizio luzea duen eta oraindik indarrean dagoen gozogintza.
Hemen Elemental eskola ere aipagarria da. Gainera, Elemental berria ere zabaltzear egongo da aurki.

## Diktaduraren amaiera

1839ko Bergarako Besarkadak suposatu zuenagatik gure herriaren izena foruei lotuta baldin badago, 1876an foruak indargabetu izanak ere badu lotura zuzenik herriarekin. Bere mendeurrenean, 1976an, “Bergarako Alkateen taldea” eratu zen eta beraiei esker ikurriñaren legeztapena lortu zen hilabete batzuetara, 1977an. Gertaera hauek mereziko lukete Bergarako historiako mugarriak irudikatuko lituzketen estanparen batean agertzea.



Foruak indargabetzearen mendeurrena (1976)

## 4. Etorkizuneruntz

Iragana ahaztu gabe, Bergararen etorkizuna irudikatzeko Errege Seminarioaren aurrealdean botatako *mapping* proiekzio baten bidez egindako aurkezpena proposatzen dugu. Jakina, behin ilundutakoan egingo litzateke eta egun bateko edo gehiagoko ospakizunen amaierarako erabiliko litzateke. Guztiz berritzailea eta ikusgarria den proiekzio teknikak hastapenetan dagoen mende honetako aro berri baten hasiera irudikatuko luke.

Bitxikeria moduan, Seminarioarekin lotutako beste urtemuga bat ere kontutan izan dezakegu, 2018an Seminarioaren gaur egungo aurrealdea eraiki zenaren 150. urteurrena izango dela alegia.

*Mapping*aren erabilera ikusgarria hobeto ezagutzeko, hiria erre zuteneko 200. urteurrenean Donostiako udaletxearen aurrealdean eskainitakoa ikustea aholkatzen dugu. (http://youtu.be/bRgmZ0CChgU)





Donostia 1813-2013 *mapping*a udaletxeko fatxadan (2013)

# 5



# *Mapping* arkitektonikoa

Iragana irudikatuz, Bergararen etorkizuna irudikatzeko ere Udaletxe edo Errege Seminarioaren aurrealdean botatako *mapping* proiekzio baten bidez egindako aurkezpena proposatzen da. Guztiz berritzailea eta ikusgarria den proiekzio teknikak hastapenetan dagoen mende honetako aro berri baten hasiera irudikatuko luke.

Bitxikeria moduan, Seminarioarekin lotutako beste urtemuga bat ere kontutan izan dezakegu, 2018an Seminarioaren gaur egungo aurrealdea eraiki zenaren 150. urteurrena izango dela alegia.

*Mapping*aren erabilera ikusgarria hobeto ezagutzeko, hiria erre zuteneko 200. urteurrenean Donostiako udaletxearen aurrealdean eskainitakoa ikustea aholkatzen dugu.

(http://youtu.be/bRgmZ0CChgU)



Bilboko Arriaga Antzokia



Bilboko Bizkaiko Aldundiko Jauregia



Donostiako Udaletxea



Gasteizko Udaletxea

# 6

# Disziplina anitzeko ekitaldia

2017ko ekainaren 24an, Donostian ospatu zuten Konstituzio plazaren 200. urteurrena. Bertan emanaldi berezi bat egin zuten: bertsolariek, Donostiako Orfeoiko abesbatzek, txistulariek eta dantzariek parte hartu zuten. Udal korporazioak ere parte hartu zuen. Oso deigarria izan zen plazaren argiztapena eta proiekzoak udaletxe zaharraren eraikineko fatxadan.

ETBk grabatu zuen eta zuzenean eman zuen.

Hau ikusterakoan pentsatu genuen oso formato egokia dela Bergarako 750. urteurrena ospatzeko. Izan daiteke San Martin plazan, oholtza ohiko tokian, proiekzioak udaletxeko fatxadan eta argiztapen berezia fatxada guztietan, seminarioa barne. Ikuzkizunean parte hartu daitezke abesbatzak, orkesta, banda, txistulariak, dantzariak...

Konstituzio plaza polita da baina Bergarakoak ez du inbidiarik. Osorik ikusteko, hemen lotura:

http://www.eitb.tv/es/video/oholtzan/4104533824001/133674/konstituzio-plazak-200-urte/














# EREDUAK

## Beste herri batzuren urteurrenak

**2000 urtean BILBOk 700 urte bete zituen eta ekitaldi ugari egon zen. Orduan Bilbao 700 Fundazioa sortu zen eta oraindik, urtero, ospakizunak egiten ditu.**

Bilbao FUNDACIÓN BILBAO 700 III MILLENIUM FUNDAZIOA

**Mil voluntarios colaborarán en el proyecto 'Zorionak', que ha costado 200 millones de pesetas**

Bilbao ya ha cerrado el apretado programa con el que 17 de junio, sábado, celebrará el 700º aniversario de la fundación de la villa. Serán siete horas, muy intensas, para repasar siete siglos. "Pretendemos que sea un paseo" por la historia cultural de la ciudad, explicó ayer el diseñador del proyecto Zorionak Bilbao, Ángel Domínguez. Este recorrido por la historia girará en torno a la arteria principal, la Ría -aunque la reproducción de la falúa no llegará a tiempo- y al Casco Viejo. Más de mil personas acompañarán al fundador, Don Diego López de Haro.

La efemérides es en realidad dos días antes. Don Diego López de Haro fundó la villa el 15 de junio de 1300. Pero Bilbao quiere celebrarlo con una fiesta abierta a toda la ciudadanía. La mayoría de las actuaciones serán al aire libre o en recintos de acceso libre. Las dos únicas de pago costarán 100 y 200 pesetas.El festival empezará a las seis de la tarde del día 17 y concluirá a la una de la madrugada del día siguiente. "Ni un minuto más tarde", recalcó Domínguez. Las siete horas, cronometradas al minuto, del Zorionak Bilbao costarán 200 millones de pesetas. La víspera habrá un ensayo general.

El fundador de la villa abordará el barco Saltillo, de la Escuela de Naútica, en Santurtzi. A medida que ascienda por la Ría se sucederán los homenajes. A la una de la tarde está previsto que las casas regionales de Barakaldo le saluden.

Así transcurrirán las siete intensas horas.

Concierto de Bienvenida (18.00). Será en el Palacio Euskalduna; en la explanada exterior del primero de los edificios emblemáticos del Bilbao actual con el que se toparán los navegantes. El programa, un repaso por la música clásica vasca, será interpretado por la Orquesta Sonfónica de Bilbao y la Sociedad Coral de Bilbao. Como el aforo es limitado, la megafonía permitirá escucharlo desde el puente Euskalduna.

Saludo del siglo XXI (19.00). Setecientos niños, que encarnan el futuro de la ciudad, soltarán multitud de globos en un escenario también futurista, el Museo Guggenheim, al paso de la embarcación que transportará a Don Diego. Habrá puenting desde el puente de La Salve.

Danza del siglo XXI (19.15). En cuanto Don Diego y su séquito lleguen al Zubi Zuri, la pasarela peatonal diseñada por Santiago Calatrava, comenzará una coreografía diseñada expresamente por Micha Van Hoecke -"el mejor coreógrafo de grandes espectáculos de Europa", según Domínguez- para la ocasión. Durará 15 minutos y correrá a cargo de Víctor Ullate.

Bizkaiko Agurra (19.30). A su llegada a la Casa Consistorial, Vizcaya dará la bienvenida a Don Diego con un repaso al folclore vasco: dantzaris, txalaparta, bertsolaris, etcétera. Habrá pantallas para poder verlo.

La caja de música (20.30). En el puente de la Merced se recordará al compositor Juan Crisóstomo de Arriaga. Su obra Obertura de los esclavos felices acompañará la representación viva del Bilbao del siglo XVIII.

Ofrenda a Begoña (20.45). Don Diego desembacará en la iglesia de San Antón.y hará allí su ofrenda a la virgen de Begoña. La capilla musical Santiago interpretará mientras La Salve, de Guridi, e Himno a la Amatxo de Begoña, de Intxausti. Los sabandieratori, tamburini y rullanti del grupo Borgo Torretta le acompañarán a las Siete Calles.



Cortejo medieval (21.00). Don Diego, montado a caballo -Carlos Sobera ha empezado a tomar clases de equitación- recorrerá parte de las Siete Calles. Su séquito llevará las reproducciones de los estandartes, del siglo XIV, de ciudades relacionadas con el Consulado del Mar: Amberes, Barcelona, Brujas, Burgos, Nantes y Sevilla. Las calles se engalanarán.

Mercado medieval (18.00-1.00). 800 metros cuadrados de calles se llenarán de puestos de productos medievales, habrá demostraciones artesanales y talleres.

Arenal siglo XIX (18.00-22.30). En un salto en el tiempo, se celebrará una fiesta del siglo XIX. Trescientos ciudadanos colaborarán convirtiéndose en Unamuno, Losada, Gayarre, añas, afiladores, soldados, sardineras, etcétera. Un carrusel (a 100 pesetas), un cine Farrusini traído expresamente para la ocasión (a 200 pesetas), la cucaña, un campo de fútbol donde jugarán futbolistas del Athletic de hoy y temporadas pasadas, un guiñol y un mercado crearán el ambiente.

Circo del Zorionak. El taller de escenografía de Els Comediants ha montado un espectáculo de payasos (18.30-22.00) y otro de trapecistas (22.30-1.00), ambos en la plaza Arriaga.

La gran ola de fuego (22.30). El espectáculo de fuegos artificiales, que se podrá contemplar desde la orilla del Ayuntamiento, ha sido diseñado por los autores del acto que selló el fin del milenio en la torre Eiffel.

Baile de debutantes (23.00- 1.00). El teatro Arriaga acogerá un baile como los que la alta sociedad celebraba para conmemorar la mayoría de edad. Con la Orquesta Lírica de Bilbao.

La fiesta veneciana (23.00). La Plaza Nueva acogerá una fiesta inspirada en la celebrada en 1872 para recibir a Amadeo de Saboya. Don Diego entregará al alcalde la carta puebla.

Bilbao 00:00. Concierto de las nacionalidades (23.00-1.00). Kepa Junkera tocará, en la plaza del Gas, su último disco en compañía de amigos como Dulce Pontes u Oskorri.




**2006an TOLOSAko herriak 750 urtemuga ospatu zuen eta ekitaldi ugari antolatu ziren. Enrike Ugarte musikariak himnoa konposatu zuen eta 750 ahotsen abesbatza osatu zuten. Liburuak argitaratu eta konferentziak ere antolatu ziren. Urte berdinean SEGURAk ere ospatu zuen urteurrena eta ekintzak egon ziren.**

El 750 aniversario del villazgo de Tolosa fue una conmemoración que se desarrolló a lo largo del año 2006. Sin embargo, dos años antes de la celebración se llevaron a cabo, también, algunas iniciativas que tenían como fin dar a conocer el acontecimiento.



Actos previos:

- Grabación, por la orquesta Et Incarnatus, de “Troika”, CD de música de carnaval.
- Edición del libro “Sobre el ayer de Tolosa” de Juan Garmendia.
- Edición, por Fundación Tolosa 750, de un DVD de vistas aéreas de Tolosa.
- Edición de una guía de Tolosa.
- Camiseta de Tolosa 750 por Fundación Tolosa y la empresa Tartalo.
- El nadador Carlos Peña obtuvo el record Guinnes por nadar 24 horas seguidas durante la inauguración del Centro de Deporte y Ocio de Usabal.
- Edición del boletín electrónico “Notici@rio de Tolosa”
- Actuación de los grupos Ken zazpi y Muchachito.
- Concurso de textos destinados a niños promovido por Titirijai y Fundación Tolosa 750.
- Edición, por Fundación Tolosa, de los folletos “Miradores de Tolosa”.

Año 2006:

- 15 de Febrero. Presentación de la programación musical Tolosa 750.
- 17 de Febrero. Acuerdo entre la Fundación Tolosa y la Universidad de Deusto para un master.
- 11 de Marzo. Concierto de Sorkun y Amparanoia.
- 23 de Marzo a 8 de Junio. Ciclo de conferencias impartidas por Aranzadi.
- 31 de Marzo. Presentación del video “Encuentros I, Ipuinartean I”

- 12 de Abril. Carta de colaboración a los empresarios de Tolosa.
- 25 de Abril. Presentación del Concurso fotográfico para el calendario oficial de Tolosa.
- 2 de Mayo. Acuerdo entre Fundación 750 y Kutxa para diversas subvenciones.
- 4 de Mayo. Presentación de la X Marcha cicloturista Abraham Olano.
- 6 de Mayo. XVIII Feria extraordinaria de la Flor y la Planta.
- 11 de Mayo. Edición del libro “Tolosako Idazleak” de Mikel Telleria.
- 20 de Mayo. Concierto extraordinario de la Escuela de Música de Tolosa.
- 21 de Mayo. Marchoa cicloturista Abraham Olano.
- 10 de Junio. Concierto de San Juan por la Banda de Tolosa, Tolosako Orfeoia, Hodeiertz, etc.
- 5 al 16 de Junio. Concurso de escaparatismo.
- 29 de Junio. Edición del CD “Musica de Tolosa” por las Bandas de música y Txistularis.
- 29 de Junio. Muestra de esculturas de Koldobika Jáuregui.
- 5 de Julio. Cata de vinos Tolosa 750.
- 21 de Julio. Inauguración de la Nuestra de Escultura Gigante.
- 28 de Julio. Concierto de la Joven Orquesta de Euskadi.
- 3 y 4 de Agosto. Quincena musical de Tolosa.
- 8 de Septiembre Concierto de la Orquesta Sinfónica de Euskadi.
- 9 de Septiembre Concierto de Coti y Bide Ertzean.
- 11 al 15 de Septiembre. Ciclo de conferencias sobre la historia de Tolosa.
- 13 de Septiembre. Dia Grande. Volteo de Campanas, Golbos aerostáticos, Actividades para escola-




res, Inauguración del proyecto “Experiencias”, Inauguración del nuevo Tinglado, Juegos infantiles en la Plaza Euskal Herria, Acto Central den el Leidor con asistencia del Lehendakari y otras autoridades. Te Deum en la Parroquia de Santa Maria, Fuegos artificiales y Espectáculo nocturno de imagen y sonido.
- 15 de Septiembre. Conciertos de Manantial Fol., Kepa Juntera y Berri Txarrak.
- 16 de Septiembre. Final del concurso de graffitis. Gigantada. Salida de compañías de Escopeteros. Espectáculo de Oskorri+Kukubiltxo, Fuegos artificiales y Concierto “Tolosa Kantuan” del Orfeón de Tolosa y 750 coralistas.
- 4 de Octubre Elección de ganadores del calendario 2017.
- 13 de Noviembre. Presentación del calendario 2017.
- 17 de Noviembre. Presentación del libro “Kontujaten” de Arantxa Iturbe.
- 1 de Diciembre Presentación del trivial virtual “Tolosa jokoan”.
- 20 de Diciembre. Acto de agradecimiento por el 750 en el cine Leidor.

**2018an ORDIZIA herriak 750 urte beteko ditu, Bergarak bezela. Eta hemen azpaldi hasita daude prestakuntzak.**

«De Villafranca a Ordizia»
El Ayuntamiento está procediendo a la distribución, gratuita, de la última monografía sobre el municipio
16.01.09 -
Un trabajo que estaba previsto viera la luz en el año 2006 con motivo de la inicialmente prevista celebración del 750 aniversario de la fundación de la Villa, celebración que precisamente ante la insistencia de la historiadora, Ana Galdós, quedaba pospuesta hasta el año 2018.




Valentín García gana también el concurso del LOGOTIPO del 750 aniversario de la Villa de Ordizia
19/05/05
ORDIZIA. DV. Con motivo de la celebración, el próximo año, del 750 aniversario de la villa, el salón de Plenos del Ayuntamiento fue ayer miercoles, a las 7 de la tarde, testigo de la presentación de un CD-rom, que recoge el documento histórico matriz de la fundación de la villa, y al mismo tiempo se dará a conocer el logotipo de los actos conmemorativos de tan histórico aniversario, propuesta que corresponde a una idea del diseñador gráfico, Valentín García, tras ser seleccionado ganador en la convocatoria que realizó el Consistorio al respecto.

La Carta Puebla en CD

Además, gracias al convenio de colaboración suscrito por el Ayuntamiento con Eusko Ikaskuntza, se ha creado un novedoso producto de carácter patrimonial y didáctico. Se trata de un CD-rom que contiene una ficha histórica de la localidad, los datos

principales de la misma y una selección de imágenes sobre el ayer, y el hoy del municipio.

Como principal aportación, el disco electrónico reproduce el documento histórico matriz de la localidad; es decir, la Carta Puebla de 1268. Y además de poder analizar el manuscrito original y de leer su transcripción, el disco cuenta con una aplicación de audio para su escucha.

La Carta Puebla la concedió el rey castellano Alfonso X, el Sabio, en la que otorgaba a la villa que surgía el Fuero de Vitoria, en el citado año 1268, momento en el que Ordizia pasó a llamarse Villafranca.

En opinión de los historiadores, la fundación de la villa de Ordizia, así como la de Tolosa y Segura, responde a un proyecto defensivo del mismo rey de Castilla que tiene lugar en 1256, por lo que el próximo año, los tres municipios festejarán su 750 cumpleaños.

Logotipo conmemorativo

En semejante aniversario, no podía faltar un logotipo que representase la conmemoración. De manera que el pasado mes de marzo, el Ayuntamiento convocó el correspondiente concurso.

De las 118 obras presentadas, el veredicto del jurado se inclinaba por la idea presentada por el diseñador gráfico, Valentín García, nacido en Vitoria y residente en Azpeitia.

En cualquier caso, no es éste el primer concurso que gana el diseñador, sino que anteriormente también ha sido seleccionado en otros concursos de logotipos como el de la Fundación de Vinos de Zamora, la Facultad de Filosofía y Letras de Cáceres y el de la Comarca de la Vera.

Valentín recuerda que nada más informarse de este concurso, consultó la historia de la villa ordiziarra, de donde extrajo algunos datos que le parecieron interesantes y los sintetizó en unos trazos.

El resultado de esta síntesis fue un logotipo del que dice que se decantó por simplificar el escudo inicial de la villa mediante tres brochazos, que le han aportado un aire más actual y modernista.

En cuanto al escudo actual del municipio en el que se ha basado el diseñador, cabe destacar que en enero de 1989 el Ayuntamiento de Ordizia decidió abrir expediente para determinar cuál era el escudo municipal, a fin de regular definitivamente el símbolo de la entidad, y dado que en el municipio existían diferentes símbolos, se pidió el informe de un especialista para que determinara al respecto.

Así, se aprobó su modificación en el Pleno del 2 de mayo de 1989, quedando la descripción de éste de la siguiente manera: en el campo de azur, un castillo almenado de oro apoyado sobre una doble hilera de escaques en oro y sable. Para el contorno se adopta el medieval hispánico terminado por abajo en arco apuntado.

Valentín García ha ideado para la ocasión, un símbolo basado en este mismo escudo de la villa resolviéndolo artísticamente con unos trazos de color oro viejo que representan las tres torres del castillo. Posteriormente, ha tratado el logotipo, que se compone de la palabras Ordizia 750. Urteurrena utilizando dos tipografías.

Por un lado, explica el diseñador, «el tipo de letra Arid ITC, que sintoniza perfectamente con el estilo artístico que caracteriza al símbolo (castillo), y por otro lado, la letra Castellar, muy adecuada para este tipo de celebraciones. Dos tipografías muy diferentes entre sí, pero perfectamente enlazadas y complementadas, evocando lo moderno, lo histórico y lo cultura».

El creador del logotipo, ha utilizado el color dorado del castillo, que se basa en una tonalidad cromática del escudo y que complementa al tono granate, también incluido, en las palabras 750 Ordizia.

Por último, dice Valentín, «el gris de la palabra Urteurrena, sintoniza muy bien y aporta ese carácter institucional de la marca». (obras4)

REUNION ABIERTA ESTE JUEVES EN TORNO AL 750 ANIVERSARIO DE LA FUNDACIÓN DE ORDIZIA

A las 19:00 en el Salón de Plenos del Ayuntamiento.
El año 2018 se celebrará el 750 centenario de la fundación de Ordizia. Con el fin de ir pensando en dicha efeméride, e iniciar una primera toma de contacto sobre el tema, el Ayuntamiento convoca a grupos y personas interesadas en el tema a la reunión abierta a celebrar el próximo jueves, día 15 de diciembre, a las 19:00 horas, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento.

Ordizia quiere completar el álbum familiar

La villa cumple 750 años desde su fundación y quieren recopilar fotos antiguas
Ordizia ya ha iniciado los preparativos del 750 aniversario de su fundación, aniversario que se celebrará dentro de un año, en el 2018. Una de las iniciativas de arranque consiste en la recopilación de fotos antiguas del municipio y de los ordiziarras. El propósito es publicar una imagen nueva cada semana en la página de Flickr del Ayuntamiento y de este modo ir completando un fondo que pasará a formar parte de la memoria histórica de la villa. Además, se podrá acceder a dichas fotografías desde la página web www.ordizia.eus.

La iniciativa ha comenzado con la publicación de una fotografía. Es una imagen de los años 30-40 del siglo pasado. Se trata de una comida de mujeres en la Fonda Zubizarreta, en el comienzo de Urdaneta Kalea. Según comentan gracias a la informadora en la foto se pueden ver a Maritxu Zubeldia, Isabel Larraza, Juli de Arostegi, Paquita Mendizabal, Maria Lasa, Javier Barandiaran, Victoria Campoi, Cristina Barandiaran, Maritxu Hidalgo, Mintegi, Laquintana, Churruca, Maritxu Usabiaga, Luluaga….Aún así, hay personas que no están catalogadas y piden ayuda para poder documentarlas.

También hay una segunda fotografía ya publicada, esta que aparece en esta página. Está ubicada en la Plaza Garagartza hacia el año 1921-22. Aparece un grupo de alumnos en el que hasta ahora se conocen a dos niños, dos hermanos: en la fila inferior, sentados, empezando por la derecha el segundo es Máximo Arana y el tercero su hermano Paco. En cuanto a los demás, se desconoce su origen por lo que también piden colaboración para que todos los ordiziarras entren en la página e intenten reconocerse o reconocer a alguien conocido.

COLABORACIÓN CIUDADANA Para llevar a cabo este objetivo con éxito es necesaria la colaboración de la población, participación que se solicita ya desde el Ayuntamiento de Ordizia. Así, hacen un llamamiento a las personas que tengan en su poder alguna fotografía válida para formar parte de este archivo. Los que quieran participar pueden remitirla escaneada al correo kultura@ordizia.eus o llevarla a la casa de cultura Barrena, donde se hará una copia. “Si es posible, se agradecerá remitir también información sobre el acontecimiento, la fecha, las personas o lugares que muestre la imagen”, subrayan desde el Ayuntamiento. De ese modo será más fácil catalogar todas las fotografías por años y también para saber quienes forman parte de la fotografía.

De este modo, con la colaboración de todos los ordiziarras se podrá conseguir un álbum familiar completo comenzando desde siglos pasados. Además, gracias a esas fotografías también se podrá conocer la historia de la villa, que pronto cumplirá 750 años desde su creación.